


Euskal AEko industria-prezioek % 0,5 egin dute behera 2019ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean

Aurreko urtearen aldean (2019ko ekainean 2018ko ekainaren aldean), % 1,2 egin dute gora

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 0,5 egin dute gora 2019ko ekainean, aurreko hilabetearen aldean, EUSTATEN datuen arabera. Datu horietan oinarrituta, ekaineko urte arteko tasa –azken hamabi hilabeteetako industria-prezioen aldakuntza jasotzen du– % 1,2koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi sektorial xehatuenak agerian uzten du 2019ko ekainean aurreko hilabetearen aldean adarrik inflazionistenak honako hauek izan direla: *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (% 2,7 egin dute gora), *Informatika eta elektronika produktuak* (% 1,8 egin dute gora) eta *Erauzketa-industriak* (% 1,4 egin dute gora). Ordea, prezioetan beherakadarik handienak honako sektore hauek izan dituzte: *Kokeriak eta petrolio fintzea* (% 7,3ko beherakada prezioetan), Urak % 1,3 behera eta *Produktu farmazeutikoak* (% 1,1eko jaitsiera prezioetan).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraikiz, aurreko hilabetearen aldean, *Tarteko ondasunek* % 0,1 egin dute gora, *Energiaren* prezioek % 2,7 egin dute behera, *Ekipoko*

ondasunek, oro har, % 0,2 egin dute behera, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek % 0,3 behera egin dutelako eta Kontsumo-ondasun iraunkorrek % 0,5 gora egin dutelako.

Urte arteko aldian, 2019ko ekainean 2018ko ekainaren aldean, prezioen gorakada handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotua* (% 9,8 egin dute gora), *Industria kimikoa* (% 2,8 egin du gora) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (% 2,5 egin du gora). Kontrara, beherakada handienak honako sektore hauetako prezioek izan dituzte: *Ehungintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 4,4ko beherakada izan dute), *Kokeriak eta petrolio fintzea* (% 2,3ko jaitsiera) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 1,5eko jaitsiera).

Ondasunen talde handien prezioen aldakuntza urte arteko aldian desberdina izan da horien artean: *Energiak* % 4,2 egin du gora eta *Ekipo-ondasunei dagozkien prezioek* % 1,8, baina *Tarteko Ondasunek* % 0,2 egin dute behera eta *Kontsumo-ondasunek* % 0,8 behera. Azken horien artean, % 2,3 egin dute gora *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioek eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 1,3 egin dute behera.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2019ko Ekaina

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2019eka / 2019mai	2019eka / 2018eka	2019eka / 2018abe
INDIZE OROKORRA	104,5	-0,5	1,2	2,1
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	105,0	1,4	1,2	2,8
Manufaktura-industria	104,8	-1,0	-0,1	1,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	102,8	2,7	9,8	6,9
Ura	105,5	-1,3	0,3	1,0
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	103,0	-0,2	-0,8	-0,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,4	0,5	2,3	2,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	103,0	-0,3	-1,3	-0,7
Ekipo-ondasunak	107,2	-0,1	1,8	1,5
Bitarteko ondasunak	102,9	0,1	-0,2	0,3
Energia	107,8	-2,7	4,2	8,4

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62